



# **SORMENAREN KABIA 2025**



**ALKIZAKO  
SORMENAREN  
KABIA**

---

## AURKEZPENA


**SORMENAREN KABIA BEKA** Alkizako Udalak, Koldobika Jauregi artistaren gidaritzapean, eta herriko eragileekin elkarlanean, 2018an sortu zuen ekimena da. Haren helburua da artistentzat espazio bat eskaintzea, non naturagune paregabe batean esperientziak partekatu, hausnartu, sortu eta esperimentatu ahal izango duten.

Alkiza kokapen estrategikoan dago, Hernio mendiaren magalean, Natura 2000 Sare ekologikoan aitortutako ingurune ikusgarrian. Gipuzkoaren erdigunean kokatuta, herriak giro lasaia eskaintzen du sormen-prozesurako, baina, aldi berean, hurbil ditu Donostia, Baiona, Bilbo eta Euskal Herriko beste hiriburu nagusiak, baita aireportuak ere. Horrek Alkiza kokaleku ezin hobea bihurtzen du landa-eremuan beren proiektuak garatu nahi dituzten artistentzat.

Eragile publiko eta pribatuen arteko elkarlanari esker sortu da Sormenaren Kabia Beka. Honakoak dira ekimenaren sustatzaileak: Alkizako Udala, Gipuzkoako Foru Aldundia, Fagus Alkiza interpretazio-zentroa, Alkizako Herri Ostatua, Lete Apartamentuak, Inazio Urruzola Txakolindegia, Ekotalo eta Ur mara Museoa.

## XEDEA

Sormenaren Kabia bekaren helburua da praktika artistikorako eta kultur sorkuntzarako gune bat eskaintzea, sormen-prozesua gizarteratzea eta artistei ikusgarritasuna ematea. Gainera, kultura eta arte-sorkuntza hirietatik haratago zabaltzea du xede, landa-eremuko herri txikietan ere proiektu artistikoak garatu daitezkeela erakutsiz. Helburu horiek betetzeko, deialdi honen bidez bi beka eskainiko dira.



---

## BEKAREN IRAUPENA

Hiru asteko iraupena izango du eta 2025eko iraila eta azaroa bitartean gauzatuko da. Antolakuntzak deialdian aukeratuak izan diren sortzaileekin adostuko ditu data zehatzak.

## PARTE-HARTZAILEAK

Deialdi honetan, adinez nagusia den edozein pertsona fisiko edo juridikok parte har dezake. Nolanahi ere, proiektua pertsona fisiko baten izenean aurkeztu beharko da, eta diru-laguntza kasu guztietan 1.250 €-koa izango da. Edozein arte diziplinako proiektuak aurkez daitezke, besteak beste: arte plastiko eta bisualak, arte eszenikoak, dantza, arkitektura, musika, literatura eta zinema.

Aurkeztutako lan guztien artetik bi proiektu hautatuko dira, eta horietako bat 18-35 urte bitarteko artista gazteei, talentu berriei zuzendua izango da, haien sormen-lana sustatzeko eta bultzatzeko.



*Mirari Errondosoro, Sormenaren Kabia 2022*  
*Argazkia: Unai Sorarrain*

---

## HAUTAKETA- BATZORDEA ETA IRIZPIDEAK

Antolakuntzak honako epaimahaia osatu du jasotako proposamen guztiak aztertu eta beka jasoko duten bi proiektuak aukeratzeko helburuarekin:

- **Elena Cajaraville Ordoñana**, artista bitxigilea eta Ur mara museoko zuzendaria.
- **Txiki Agirre, Keixeta**, margolari eta eskultorea.
- **Zaloa Ipina Bidaurrezaga**, artista plastikoa.

Hautaketa-batzordeak ondoko irizpideak hartuko ditu kontuan proiektuak ebaluatzeko:

- Kalitatea eta sormena
- Berrikuntza eta originaltasuna
- Ibilbide artistikoa
- Motibazioa eta konpromisoa
- Bideragarritasuna, metodologia eta kronograma
- Jasangarritasuna
- Alkizako herriari egiten zaion ekarpena

Guztira bi proiektu hautatuko dira, eta horietako bat 18-35 urte bitarteko artistei zuzenduko da.



*Nomad Studioko kideak, Sormenaren Kabia 2023*  
*Argazkia: Unai Sorarrain*

---

## BEKAREN HORNIDURA ETA GARAPENA

- Bi beka emango dira.
- Hautatutako proiektu bakoitzari 1.250 €-ko diru-saria emango zaio. Egonaldia hasterakoan 900 € eta gainerakoa (350 €) memoria aurkeztu ondoren.
- Alkizako Udalak Lete Apartamentuetako batean (<http://letealkiza.com>) hiru asteko egonaldia eskainiko die irabazleei. Artista bakoitzak bere apartamentua izango du.
- Parte-hartzaileek Elena Cajaraville artistaren ([www.urmara.com](http://www.urmara.com)) bidelaguntza izango dute. Proiektu bakoitzak 10 orduko aholkularitza izango du.
- Antolakuntzak artisten eskura jarriko ditu euren proiektuak garatu ahal izateko udal azpiegiturak.
- Antolakuntzak proiektu bakoitzeko ikus-entzunezko bana egingo du artistek Alkizan zer eta nola egin duten ezagutzera emateko. Irabazleek bideoak euren promoziorako erabili ahal izango dituzte, Alkizan jendaurreko aurkezpena egin ondoren.
- Hautatuek Alkizako ondare naturalaz gainera, bertako ondare kulturala ezagutu eta bizitzeko modua izango dute. Herriko ohiturak, tradizioak, eta nola ez, gure hizkuntza ezagutzeko aukera paregabea izango dute. Herri euskalduna da Alkiza, euskara da nagusi herrian eta naturala da bertan euskaraz bizitzea. Alkizara datorrenak euskara ezagutzen ez badu, udalak hainbat baliabide eskainiko dizkio horretan laguntzeko: euskarazko oinarrizko hainbat kontzeptu ikasteko saio labur bat; euskarazko oinarrizko hiztegi txiki bat, eta nahi izatera, beste hainbat baliabide ere eskura jarriko zaizkio.

Bekari buruzko informazioa [HEMEN](#)



*Ada Garrués, Sormenaren Kabia Beka 2024  
Argazkia: Unai Sorarrain*

---

## PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

- Eskatzaile bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu ahalko du.
- Lanak beste inolako deialditara edo lehiaketetara aurkeztu gabeak izan beharko dira.
- Hautagaiek argi adierazi beharko dute landu nahi duten proiektuaren plangintza orokorra zein den eta Alkizako egonaldian zehar zehazki zer egingo duten (proiektuaren kronograma).
- Proiektuak Sormenaren Kabiak eskaintzen dituen baliabide eta baldintzetara moldagarria izan beharko du.
- Artistek antolakuntzarekin adostutako datetan Alkizan egon beharko dute. Baldintza hori beteko ez balute, 1.250 euroko saria eta egonaldian parte hartzeko eskubidea galduko lituzkete.
- Sormenaren Kabian parte hartuko duten sortzaileek, noiz edo noiz, nola lan egiten duten ikusteko aukera eskainiko diete herritarrei zein kanpoko bisitariei eta kazetariei ere; trukean ez dute aparteko ordainsaririk jasoko.
- Alkizako egonaldia amaitzean, parte-hartzaileek -bai banakako artistek zein taldeek- proiektuaren memoria bat aurkeztu beharko dute, urtea amaitu aurretik.
- Egindako lanaren ale edo muestra bat antolakuntzari entregatu beharko diote, Fagus Alkiza Interpretazio Zentroan denboraldi batez erakusgai jarri ahal izateko. Ondoren, pieza hori Fagus Alkizako gordailuan geratuko da.
- Antolakuntzak ez ditu onartuko hizkera sexista, homofoboa edo arrazista darabilten proiektuak.



*Uxue Juarez, Sormenaren Kabia 2024  
Argazkia: Unai Sorarrain*

---

## IZEN-EMATEKO EPEA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

- **Izena emateko epea** 2025eko maiatzaren 5etik ekainaren 6ra egongo da zabalik, bi egunak barne. Epaimahaiaren erabakiaren berri emango zaie hautagaiei emailaz uztaila amaitu aurretik.
- **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

Izena emateko dokumentazioa postaz, edo emailaz bidali daiteke. Izen-ematea egiterakoan hurrengoak aurkeztu beharko dira:

1. Datu pertsonalak: izen-abizenak, helbidea, helbide elektronikoa eta harremanetarako telefono zenbakia. Hautatutako proiektuaren ordezkari bakarra izendatuko da solaskide moduan.
2. *Curriculum Vitae*-a, kultur arloan izandako lan-eskarmentuari mugatutakoa eta biografia motza.
3. Proiektuaren proposamena azalduko duen laburpena (500-1000 hitz gehienez).
4. Proiektua azaltzeko lagungarri den material grafikoa edo bestelakoa.
5. Egonaldirako aurreikusitako lan-egutegia.
6. Aurkezpen-eskutitza (500 hitz gehienez) edota aurkezpen-bideoa (gehienera ere 2 minutukoa). Parte hartzeko duen interesa edo motibazioa zein den eta herrian lana nola landuko lukeen azaldu beharko du.

Eskaera **sormenarenkabia@gmail.com** helbidera bidali daiteke.

Mezuaren **gaian** jarri beharrekoa: **Sormenaren Kabia+hautagaiaren izen-abizenak.**

### **Posta bidez bidaltzeko helbidea:**

Alkizako Udala  
Alkiza Plaza 12  
20494 Alkiza

Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, aurkeztu ahal izango da.

Hautatuek nortasun agiriaren edo pasaportearen kopia bat aurkeztu beharko dute 10 eguneko epean, aukeratuak izan direla jakinarazi zaien eguna aintzat hartuta.

---

## JABETZA INTELEKTUALA ETA IRUDI ESKUBIDEAK

Parte-hartzaileak izango dira aurkezten dituzten proiektuen egile eta originaltasunaren erantzule, eta proiektuen gaineko jabetza intelektualeko eskubide guztiak legez dagozkiela bermatuko dute.

Hautatutako sortzaileak Alkizako Udalari utziko dizkio proiektuari dagozkion irudi eskubideak, Sormenaren Kabiari buruzko jardueren berri emateko argitalpen, katalogo edo dena delakoetarako, paperean zein modu digitalean argitaratzeko.

Deialdi honetan emandako datu pertsonalak Sormenaren Kabia proiektuko fitxategi batean sartuko dira. Aukeratutako artistak, antolakuntzari bere izena proiektu honen xedeen barruan komenigarritzat jotzen duen moduan aipatzeko baimena emango dio.

Parte-hartzaileek proiektu honen lan-guneetan hartutako irudietan (argazkiak, bideoak, sare sozialak e.a) ager daitezkeela onartuko dute.

### DATUEN BABESA

Parte-hartzaileek onartzen dute deialdi honen ondorioz emandako datu pertsonalak Alkizako Udalaren titulartasuneko fitxategi batean sartzea. Fitxategi horren helbidea San Martin plaza 12 da, deialdi hau kudeatu ahal izateko.

Datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurka egiteko eskubideak posta elektronikoko bidez erabili ahal izango dira, [dbo@alkiza.eus](mailto:dbo@alkiza.eus) helbidera mezu bat bidalita, gaian datuak eskuratzeko eskubideak adierazita. Horrekin batera, datuen titularrak sinatutako gutun bat aurkeztu beharko da, jakinarazpenetarako helbide bat eta NANaren edo antzeko beste egiaztagiri baten kopia bat.

**Deialdian parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar**

